



Azpeitiko Udala

KIROL-KLUBEN OHIKO JARDUERA ETA EGITURAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK 2024-2025 DENBORALDIA / 2025.URTEA (25-36D - 1.A / 2025 KIKL)

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria dena.

Aginte publikoek, bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak, besteak beste, printzipio hauek izango ditu oinarrian; kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea; lehiaketa-kirola bideratzea eta sustatzea (2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolarena) eta Udalak eskumen propioa du osasun publikoa sustatzea, kudeatzea defendatzea eta babestea, baita kirola eta kirol jarduerak antolatzeke eta sustatzeko ere (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.10 eta 17.1.19 artikulua).

Azpeitiko Udalak 2025eko uztailaren 18ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez 2025eko dirulaguntzen deialdia arautzen duten **oinarri arautzaileak** ezarri zituen, GAOn uztailaren 24an argitaratuak, eta dirulaguntza horien artean Azpeitiko kirol-kluben 2024-2025 denboraldian/2025.urteko ohiko jarduera eta egiturak garatzeko laguntza zuzenak jasotzen dira.

Dirulaguntza horien emakida 1.A eranskinean jasotako oinarrietan arautzen da, eta horientzat konkurrentziazko emakida-prozedura aurreikusten da oinarrietan. Bere helburua herritar aktibo eta osasuntsuagoaren alde lan egiten duten kirol-elkarteei laguntzea da, hauek jarduera fisikoa modu erregularrean eta egokian egitea bultzatzeko, eta modu honetan herritarron kirol-praktika maila eta maiztasuna handitzeko. Udalak bat egiten du helburu horrekin.

Eskaerak aurkezteko epean hamaika kirol-kluben eskaerak jaso dira, eta 2024-2025 denboraldia/2025.urtean kirol ekintza bat garatu izana egiaztatzeke beharrezko dokumentazioa aurkeztu dute. Kirol Sailak aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ditu, eta txosten bat prestatu du eskaeren xedea eman beharreko dirulaguntzekin eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuta.

Kirol sailak eskabideak ebaluatu ditu oinarri arautzaileetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Halaber, eskatzaileek dirulaguntzaren onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituztela bermatu da, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak barne, eta ea gain-finantzaketarik dagoen ala ez egiaztatu da.

Hamaika eskaera horietatik bati, hain zuzen ere 2025KIKL0020 eskatzaileari, dirulaguntzaren bateragarritasun irizpidea ezartzea proposatzen da, GAO, 2025-07-24ko deialdiaren 15.atalak jasotzen duen “dirulaguntzaren bateragarritasuna” irizpidean oinarrituz; ...”Deialdi honetan aurreikusitako laguntza bateragarria da beste edozein administrazio publiko/pribatu eman edo ezar ditzakeen laguntzekin, esleitutako guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen diruz lagundutako jarduerak duen kostua”. Beraz, oinarri arautzaileari jarraituz eta gainfinantzaketa ekiditeko, 2025KIKL00020 eskatzaileari 489,91€-ko kenkaria ezartzea proposatzen da.

Bestalde, aipatu behar da, 2025eko udal ordenantza fiskaletan agertzen den moduan Udal kirol-instalazioak erabiltzen dituzten kirol-klubetako kide izan eta



Azpeitiko Udala

instalazioak erabiltzeko bazkide ez direnek 115,00€ ordaindu behar dutela. Horren ezean, klubuen ohiko jarduerarengatik elkarteei dagokien urteko dirulaguntzari, kontzeptu hori aplikatuko zaio.

Hori horrela, udal kirol-batzordeak 2025eko abenduaren 17an egindako ohiko bilkuran, oinarri arautzaileetako irizpideen baitan eta ordenantza fiskaletan jasota dagoen udal instalazioak erabiltzeko kirolarien “abonu-kuota” irizpidea ezarri ondoren, ebazpen proposamena egin dio alkatetza honi.

Hala, dagokion aurrekontuan behar adinako kontsignazioa badagoela kontuan izanda 1.0500.481.341.00.02 2025 *Transf. arruntak Kirolak* partidan, eta eskumenari dagokionean Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioena jarraituz, **ERABAKI DUT:**

Kirol-klubuen ohiko jarduera eta egiturak garatzeko 2025. ekitaldiko dirulaguntza deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaztea, eta hurrengo taulan jasotako kopuruak **onartzea** eta **ordaintzea**, Kirol Batzordeak egindako ebazpen proposamenaren arabera:

Espedientea	Onuraduna	ONARTUTA KO diru-kopurua	Kenkaria bazkidetza	DIRU- KOPURUA	Gainfinan tzaketa	ORDAINKE TA kopurua
2025KIKL0005	Lagun-Onak FT	7.961,92	3.450,00	4.511,92		4.511,92
2025KIKL0022	Iraurgi SB	11.265,39	2.300,00	8.965,39		8.965,39
2025KIKL0011	Kodaore Judo Elkartea	2.741,55	230,00	2.511,55		2.511,55
2025KIKL0016	Ikasberri Kirol elkartea	4.749,68	2.645,00	2.104,68		2.104,68
2025KIKL0009	Izarraitz Igeri elkartea	3.286,31	0,00	3.286,31		3.286,31
2025KIKL0002	Ilunpe pelota elkartea	1.132,84	0,00	1.132,84		1.132,84
2025KIKL0013	Lagun-Onak M.B	3.066,95	0,00	3.066,95		3.066,95
2025KIKL00021	Loretoki Gimnastika	1.214,72	115,00	1.099,72		1.099,72
2025KIKL0004	Lagun-Onak T.E	2.560,53	0,00	2.560,53		2.560,53
2025KIKL0015	Arauntza Riders	2.755,19	0,00	2.755,19		2.755,19
2025KIKL00020	Galaktik Areto futbola	2.264,91	575,00	1.689,91	489,91	1.200,00
	GUZTIRA euroak	43.000,00	9.315,00	33684,99	489,91	33.195,08

Onuradunek beharrezkoa izango dute laguntzaren **justifikazioa aurkeztea, 2026ko otsailaren 28a baino lehen**. Horretarako, jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.

Alkatetzaren erabaki hau web orrian argitaratuko da eta baita Estatuko



Azpeitiko Udala

diru-laguntzen datu basean ere. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazio auzi errekurtsua aurkez dezakete interesatuek zuzenean Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko alkate honi hilabeteko epean.

Azpeitia, sinadura elektronikoaren datan



EKS | CSV: ESKUa416756b-1920-4e11-a8a8-dd049826bce6

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DIRU0014-EBAZPENA/RESOLUCION (AZPEITIKO UDALA)